

## **ELAk, Steilasek eta CCOOk, Kristau Eskolari eta gainerako patronalei azaroan sinatutako akordioak bere gain har ditzatela eta Hezkuntza Sailari sinatutako birkokatze-akordioa bete dadin beharrezkoak diren mekanismoak aktiba ditzala eskatzen diegu**

### **Bestela, lan gatazkari eta gatazka juridikoari berriro ekitea beste biderik ez digute utziko, horrek dakartzan ondorioekin**

Azaroaren 9an, lan gatazka gogor baten ondoren, gehiengo sindikalak eta patronal nagusiak akordio bikain bat sinatu genuen EAEko gizarte-ekimeneko ikastetxeen sektorerako, eduki oso garrantzitsuak dituena, eta langileen lan baldintzak nabarmen hobetzen dituena.

Akordioak garai batean gainditu ezin ziren oztopoak gainditzeko edukiak jasotzen ditu, hala nola, soldata eta lan baldintzak finantzaketa publikoarekin lotzeko patronalen betiko asmoa, galdutako eros-ahalmenaren ia erdia berreskuratzea, kolektibo ezberdinentzat lan pertsonalerako ordu osagarrien aitortza, % 75ko lanaldiko erretiro partziala eta kolektibo guztientzat lanaldiaren % 100ean eta lan kontratu mugagabearekin errelebobistak kontratatzea, zeinak birkokapenerako irizpide objektiboak ezartzearekin batera, matrikulazioaren beharadagatik beraien lanpostua galdu dezaketen langileak birkokatze bermea suposatzen duen.

Patronalek eta sindikatuok, birkokapen akordioa hitzartu eta sinatu genuen Hezkuntza Sailarekin, zehaztasun eta xehetasun gehiago ematen dituena eta prozedura eta helburuen inguruko zehaztapen gehiago dituena.

Azken hilabeteotan, greba amaierako akordioa sinatu dugun sindikatuok, Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalekin adostasunetara iristen saiatu gara, bai negoziazio-mahaiaren bileretan, bai izan ditugun beste kontaktu batzuetan ere, greba amaierako akordioaren edukiak hitzarmenean adostutako baldintzetan txertatzeko helburuarekin.

Ez da erraza izan, patronalak, adostutakoa bere gain hartzeko ez duelako borondaterik adierazi, eta prozesua oztopatzen eta atzeratzen aritu delako etengabe. Azken oztopoa, lanpostua galtzen duten langileak birkokatze, Patronalak jada sinatuta dituen funtsezko irizpideak erreglamenduan sartzeko asmorik ez duela izan da, lehendik hartutako konpromisoak indargabetu nahi baititu, birkokatze sistemaren eraginkortasuna erabat kolokan jarritz.

Bestalde, Hezkuntza Sailak birkokapen Akordioa betearazteko duen erantzukizuna eta eragiteko aukera ikusita, ELA, Steilas eta CCOO sindikatuok bilera bat eskatu diogu behin baino gehiagotan, baina eskaera hori ez da aintzat hartu.

Patronalaren asmoa greba-amaierako akordioaren baldintzak eta espiritua aldatzea izan da. Gobernuaren finantzaketa jaso nahi du erretiro partzialen kostua ordaintzeko, baina bere gain hartu gabe lanpostua galtzen duten sektoreko langileak erizpide objektiboan bitartez birkokatze konpromezua, beren aldebakarreko kontratazio politikari eutsiz. Azken batean, birkokapenaren inguruan adostutakoa ez du bete nahi.

ELA, Steilas eta CCOO sindikatuok patronalari eskatzen diogu hitzartutako akordioak bere gain hartzeko eta sektoreko hitzarmenean jasotzeko, baita adostutako baldintzetan aplikatzeko ere. Era berean, Hezkuntza Sailari eskatzen diogu beharrezkoak diren mekanismoak aktiba ditzala sinatutako birkokapen akordioa bete dadin.

Bestela, lan gatazkaren eta gatazka juridikoaren bideari heldu beharko diogu, hainbeste denbora eta ahalegin suposatu duten konpromisoak bete daitezela.

Euskal Herria a 29 de mayo de 2020



## **ELA, STEILAS y CCOO exigimos a Kristau Eskola y resto de patronales que asuma los acuerdos firmados en noviembre, y al Departamento de Educación que active los mecanismos necesarios para que el Acuerdo de recolocaciones suscrito se cumpla**

### **En caso contrario no nos dejarán otro camino que el de retomar la vía del conflicto laboral y jurídico, con las consecuencias que ello conlleva**

El 9 de Noviembre y tras un conflicto laboral muy duro, la mayoría sindical y la patronal mayoritaria firmamos un gran acuerdo para el sector de centros educativos de iniciativa social de Euskadi, con contenidos de gran calado y que suponen una mejora sustancial en las condiciones laborales de las personas trabajadoras.

El Acuerdo recoge contenidos que traspasan barreras otrora infranqueables, como eterna pretensión patronal de vincular las condiciones salariales y laborales a la financiación pública, la recuperación de prácticamente la mitad del poder adquisitivo perdido, el reconocimiento de horas complementarias para trabajo personal para distintos colectivos o la jubilación parcial al 75% de jornada y la contratación de relevistas al 100% de jornada y por tiempo indefinido para todos los colectivos, que unido al establecimiento de unos criterios recolocación objetivos y claros garantizan la recolocación del personal que pierda su puesto de trabajo por el descenso de matriculación.

Organizaciones patronales y sindicatos, pactamos y firmamos, además, un acuerdo de recolocación con el departamento de educación que añade más concreción y detalle y especifica muchos más aspectos del procedimiento y resultado del mismo.

Durante estos meses posteriores, los sindicatos firmantes del acuerdo de fin de huelga hemos tratado de llegar a consensos con las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA, tanto en las reuniones de la mesa de negociación como en otros contactos que hemos mantenido, con el objetivo de insertar los contenidos del Acuerdo de fin de huelga en el Convenio en los términos pactados.

No ha sido fácil, la patronal, reticente a asumir lo acordado, ha estado obstaculizando y retrasando continuamente dicho proceso. El último de los obstáculos, es que la patronal no está dispuesta a incluir en el reglamento de recolocación del personal que pierda su puesto de trabajo criterios fundamentales que ya tiene firmados, pretendiendo desvirtuar los compromisos ya adquiridos y que conllevarían la ineficacia en el sistema de recolocación.

Por otro lado a la vista de la capacidad de influencia en los resultados y la responsabilidad del Departamento de Educación en el cumplimiento del Acuerdo de Recolocaciones, los sindicatos ELA, STEILAS y CCOO le hemos solicitado una reunión en varias ocasiones, petición que, sin embargo, no ha sido atendida.

La patronal pretende modificar los términos y el espíritu del Acuerdo de Fin de Huelga en este tema. Pretende recibir financiación por parte del Gobierno para cubrir el coste de las jubilaciones parciales, pero sin asumir su compromiso de hacerlo a cambio de recolocar, a través de criterios objetivos a las personas trabajadoras del sector que pierdan su puesto de trabajo, e intentando mantener su política de contratación a dedo. Pretende en definitiva incumplir lo pactado en cuanto a la recolocación se refiere.

Los sindicatos ELA, STEILAS y CCOO exigimos a la patronal que asuma los acuerdos pactados y proceda a recogerlos en el Convenio del sector, así como a aplicarlos en los

términos consensuados. A su vez, exigimos al Departamento de Educación que active los mecanismos necesarios para que el Acuerdo de recolocaciones suscrito se cumpla.

En caso contrario, nos veremos obligados a retomar la vía del conflicto laboral y jurídico para hacer valer los compromisos que tanto tiempo y esfuerzo nos ha costado conseguir.

Euskal Herria a 29 de mayo de 2020

